



Miguel Poiares Maduro

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatu nagusia

Miguel Poiares Maduro Europako eta Nazioarteko Zuzenbideko katedraduna da Lisboako Nova unibertsitatean, eta irakasle gonbidatua Macau-ko (Txina) Institute of European Studies Institutuan, Natolin hiriko (Polonia) College of Europe unibertsitatean, eta Madrilgo Ortega y Gasset Institutuan. Row and Maw eta Obiettivo Europa sariak jaso ditu Europar Batasuneko Zuzenbideari buruzko doktore tesirik onena egiteagatik. Gaur egun, Academy of International Trade Law akademiako zuzendarietako bat da, eta Europar Batasunari buruzko azterlanak biltzen dituen Hart Publishing Series bildumako eta European Law Journal aldizkariako editorea. Liburu zein artikulu ugari idatzi ditu Europar Batasunaren inguruan; besteak beste, *We The Court - The European Court of Justice and the European Economic Constitution* (Oxford: Hart Publishing, 1998).

1.

Europar Batasuneko Justizia Auzitegiko abokatu nagusia zaitugu. Zein da zehazki zure egitekoa?

Justizia Auzitegiko abokatu nagusiaren figura ez dago oso zabaldua. Inon tradizioz baldin badu, Frantziako Estatuko Kontseiluan du. Oso modu xumean esanda, abokatu nagusiaren zeregina da Justizia Auzitegiari kasu jakin bat ebazteko proposamena luzatzea, bere iritzia ematea, "konklusio" izenekoa. Abokatu nagusia Auzitegiko kide bat da, epailearen estatutu bera du, eta prozesuko fase guztietan hartzen du parte. Nolanahi ere, deliberatzeko unea iristen denean (idatzizko fasearen eta bistaren ondoren), abokatu nagusia prozesutik banandu egiten da, eta auziari zein konponbide eman beharko litzaiokeen azaltzen du. Gero, Justizia Auzitegiak erabakiko du abokatu nagusiaren proposamenari jarraitu edo ez.

Hainbat arrazoi dago Justizia Auzitegian horrelako figura berezia egoteko: alde batetik, Justizia Auzitegiaren epaiak sarritan motzak eta gutxi garatuak izan direnez, abokatu nagusiaren kon-

klusioek epaiaren zentzua eta nondik norakoa hobeto ulertzen laguntzen dute. Esan beharra dago abokatu nagusiaren konklusioak epaiarekin batera argitaratzen direla.

Beste alde batetik, Auzitegiak emandako epaia ez datorrenean abokatu nagusiak aurkeztutako konklusioarekin bat, abokatu nagusiak, nolabait, Auzitegiaren sen kritiko modura jarduten du. Alegia, Auzitegiaren baitan dialektika sortzeko dagoen mekanismo bakarra abokatu nagusiaren konklusioak izaten dira. Gainera, arlo jakin batean sortzen ari den jurisprudentzia aldatzea ere proposatzen dio noizbehinka abokatu nagusiak Auzitegiari.

Horrez guztiaz gain, beste zeregin garrantzitsu bat daukagu: Justizia Auzitegiaren epaiak ordenamendu juridiko komunitarioko jurisprudentzian kokatzen laguntzea. Eta beste alderdi garrantzitsu bat ere bai, oso kontuan hartu beharrekoa: prozesu askotan Justizia Auzitegiak lehen eta azken instantzia modura ebazten duenez, abokatu nagusiak egindako lehen azterketa horrek, neurri batean, eskumen bikoitza bermatzen du, prozesu berberaren gainean bi ikuskera ezberdin egongo direla alegia.

“ Justizia Auzitegiaren epaiak sarritan motzak eta gutxi garatuak izan direnez, abokatu nagusiaren konklusioek epaiaren zentzua eta nondik norakoa hobeto ulertzen laguntzen dute ”

2.

Zure aburuz, zein ondorio izango ditu Europar Batasunaren zabalkundeak Justizia Auzitegiaren funtzionamendu eta antolaketan?

Sistema juridiko ezberdinak bateratu egin beharko badira ere, ez zait iruditzen hori Justizia Auzitegiarentzat arazo bat izango denik. Ziurrenik, askoz ere arazo gehiago emango ditu Batasunean sartuberriak diren herrialdeetan Zuzenbide Komunitarioa aplikatzeak. Estatu batzuek, adibidez, ez daukate prozesuak berraztertzearen goragoko instantzia batera jotzeko ohiturarik, nahiz eta hori den ordenamendu juridiko komunitarioak Auzitegi nazionalen eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren harremanetarako aurreikusita daukan mekanismoa, Zuzenbide Komunitarioa aplikatuko dela bermatzeko. Arazo hori dagoeneko sortu zaigu Estatu kide batzuekin. Espainiak eta Portugalek, esaterako, oso kasu gutxitan bidaltzen dituzte Auzitegi nazionaletan aztertutako prozesuak Europar Batasuneko Justizia Auzitegira. Espainian duela gutxi egin den azterketa batek dioenez, epaile nazionalen aurrean Zuzenbide Komunitarioaren aplikazioaren inguruan aurkeztutako prozesuen %1,2 bakarrik helegin ziren Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren aurrean. Arazo hau, jakina, biderkatu egingo da Estatu kideen kopurua handitzen joan ahala, baina ez dut uste egoera orain daukagunarekiko oso ezberdina izango denik.

Bestetik, ordenamendu juridiko gehiago izatea eta Auzitegia tradizio juridiko ezberdina duten epailez osatua egotea onuragarri eta aberasgarria da, nire ustez.

Auzitegiaren antolaketari dagokionez daukagun arazo nagusia, kideen kopuruarena da batez ere. Horrenbeste kide edukita, Auzitegi Konstituzional bat baino gehiago, Auzitegi Goren bat ematen du. Eta hor bi motako arazoak sor daitezke: batetik, Auzitegiko kide guztien artean eztabaidatzeko zailtasunak. Ez da batere erraza mahai baten inguruan 25 kide bildu eta eztabaidatzen aritzea. Horrela, zaila egiten da Zuzenbide Komunitarioa garatzeko orduan norabide koherente bat hartzea. Eta arazo hori areagotu egingo zaigu Justizia Auzitegian areto gehiago sortzean, hauek emandako epaien artean ezadostasunak egoteko arriskua handiagoa izango baita.

Oso zaila zenez 25 kideko auzitegi bat mantentzea, Grande Chambre izeneko areto berri bat sortu da, neurri handi batean Auzitegiko Osoko Bilkuraren papera betetzen duena. Ez da askotan bilduko; salbuespenezko kasuak edo kasurik garrantzitsuenak aztertzea mugatuko da. Auzitegiko kideen erdia baino gutxiago ditu, eta hauek, gainera, aldatzen joaten dira. Honek arrisku bat dakar, noski, litekeena baita Grande Chambre-k Zuzenbide Komunitarioa ez eramatea beti ildo uniforme batean.

Nire iritzian, Europar Batasunaren zabalkundeak bi erronka nagusi ditu bere aurrean: batetik, ordenamendu juridiko berriek lehenbailehen ikasi beharko dute Zuzenbide Komunitarioarekin batera jarduten, Zuzenbide Komunitarioa beren ordenamendu juridiko nazionaletan eraginkortasun osoz sartzen; bestetik, hogeita bost kide gehi zortzi abokatu nagusi izango dituen instantzian deliberatzeko zailtasuna gainditu beharko da. Auzitegiko aretoen jurisprudentzian eta Grande Chambre-ren funtzionamenduan jarrera bateratuak mantentzen ahalegindu beharko dugu, ez dadin ezberdintasunik sor.

“ Auzitegia tradizio juridiko ezberdina duten epailez osatua egotea onuragarri eta aberasgarria da ”

3.

Zeintzuk izango dira Europarako Konstituzio bat eratzen duen Itunak Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari ekarriko dizkion berrikuntza nagusiak? Zer derizkiezu Justizia Auzitegiari buruz jasotzen dituen xedapenei?

Konstituzioak ez dio Justizia Auzitegiari aldaketa handirik ekarriko. Auzitegiari izena aldatzekotan dabilta, baina oraingoz ez da horren inguruan ezer zehaztu. Edonola ere, Europar Batasuneko sistema judizialaren antolaketa ez da oraingoaren oso ezberdina izango.

“ Testu juridiko bat Konstituzio Zuzenbidearen argitan irakurtzea, edo Nazioarteko Zuzenbidearen argitan, ez da gauza bera ”

Nire ustez, Konstituzioa indarrean sartzen denean, Justizia Auzitegiak oso kontuan izan beharko duena da zenbateraino aldatuko duen Europar Konstituzioak arau juridikoak irakurri edo interpretatzeko modua. Batzuen ustez, Europarako Konstituzio bat eratzen duen Itunak ez du egungo egoera gehiegi aldatuko, errealitatea kontsolidatzeko xedea besterik ez duelako. Beste batzuen aburuz, berriz, Konstituzioa onartzeak, bertako xedapenak oso eraginkorrak izan gabe ere, sekulako eragina izango du, aurrerantzean Konstituzio Zuzenbidea ez delako Nazioarteko Zuzenbidea izango. Testu juridiko bat Konstituzio Zuzenbidearen argitan irakurtzea, edo Nazioarteko Zuzenbidearen argitan, ez da gauza bera; ondorio ezberdinak izango lituzke. Horregatik, Justizia Auzitegiarentzat funtsezkoa izango da bi bertsio horien artean nabigatzen jakitea.

Justizia Auzitegiaren antolaketari dagokionez, ez da aldaketa handirik egongo. Aldaketa nagusiak Auzitegiaren jurisprudentziaren planteamenduan emango dira, ikusi beharko baita Auzitegiak

Europar Batasuneko ordenamenduarekiko daukan kontzepzio sistemikoa aldatuko duen edo ez. Edonola ere, Europar Konstituzioa onartzearekin, handitu eta sendotu egingo da Justizia Auzitegiaren legitimitatea. Konstituzio bat aplikatzen aritzen den Auzitegi batek legitimitate handiagoz jokatzeko du kontrol judiziala egikaritzean. Alderdi horretatik, Konstituzioa onartzea onuragarria izanen da Auzitegiarentzat.

4.

Zer-nolako harremana izan beharko luke Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak?

Nik uste dut organo bakoitzak bestearen garrantzia instituzionalaz jabetu behar duela, eta bakoitzaren eskuduntzen banaketa errespetatu. Zeregin ezberdinak dauzkaten arren, aztertzen dituzten gaiak elkarri oso lotuta daude. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak, oinarritzko eskubiak aplikatu behar izaten dituenean, beti oso kontuan izaten du Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia. Badira Auzitegi bietako kideak harremanetan izan eta euren ikuspuntuak trukatzeko mekanismoak, baina ez dago -eta, nire aburuz, ez luke egon beharko ere- bi eskumenak elkarren artean komunikatzeko mekanismo instituzional edo formalik. Dena den, beharrezkoa iruditzen zait Auzitegi hauetako bakoitzak kontuan hartzea besteak oinarritzko eskubideen arloan sortzen duen jurisprudentzia.

Alde horretatik, Europar Batasuneko Justizia Auzitegia saiatzen da Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentzia kontuan izaten, eta, gainera, sarritan aipatzen du, nahiz eta Europar Batasuna ez den Oinarritzko Eskubide eta Askatasunen Europako Konbentzioko kide. Europar Batasuneko Justizia Auzitegiarentzat ez da funtsezko eskubideen arloan aldaketa handiegirik gertatuko, dagoeneko arreta handia eskaintzen diolako Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentziari. Dena den, arazo instituzional handiak sortuko dira ziurrenik. Esaterako, horra galdera xume bat: epaile bakar batek ordezkatzeko al du Europar Batasuna Giza Eskubideen Europako Auzitegian? Niri behintzat, zaila egiten zait oso Europar Batasun osoaren ordezkaritza epaile bakar baten esku geldituko dela pentsatzea. Eta, hala izatekotan, nor izango da epaile hori? Eta Estatu kideek onartu egingo al dute?

Arlo jakin batzuetan, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiari espresuki esaten zaio Giza Eskubideen Europako Auzitegiak garatutako jurisprudentziari men egin behar diola. Horixe aurreikusten du Europar Batasuneko Oinarritzko Eskubideen Gutunak, adibidez. Baina ez zait iru-

ditzen bi Auzitegion artean edozein motako harremana gara daitekeenik. Adibidez, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak prozesuak Giza Eskubideen Europako Auzitegiari bideratzeko mekanismo bat garatzearen aukera aipatu izan da. Nire iritzian, gisa horretako sistema bat oso konplikatua izango litzateke, eta erabilgarritasun gutxikoa.

Aldiz, Oinarrizko Eskubide eta Askatasunen Europar Konbentzioaren erregimena ezberdina da. Ez dut ikusten Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren artean komunikatzeko sistema instituzionalizatu bat sortzeko beharrik.

Elkarrizketatzaileak: Itziar Alkorta,
Joxerramon Bengoetxea
Itzultzailea: Koro Garmendia

